



AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2017ko apirilaren 5a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:15 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:48

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldúa Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Miriam Uranga Egurza, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Martxoaren 8ko 75/2017 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez 1/2017 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea onartzen da, ordainketa-kredituak txertatzeko modalitatean, 2016ko aurrekontutik indarrean dagoen 2017ko aurrekontura.



- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 2/2017 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean egina.
- 3.- Onartzea, egoki bada, 2017ko lehenengo konpromiso-kredituen espedientea.
- 4.- Onartzea, egoki bada, baldintza administratibo partikularrak, Orioko Zaragueta eskola bigarren handitzeko lanak kontratatzeko, prozedura irekiaren bidez. Lanak Juan Eizmendi eta Ana Saneiro arkitektoek idatzitako proiektuaren arabera egingo dira.
- 5.- Onartzea, egoki bada, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboak, honako kontzesio administratiboaren kontratazioa arautzeko: Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikina okupatu eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontratua.

Esan-eginak

1.- MARTXOAREN 8KO 75/2017 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ 1/2017 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEN DA, ORDAINKETA-KREDITUAK TXERTATZEKO MODALITATEAN, 2016KO AURREKONTUTIK INDARREAN DAGOEN 2017KO AURREKONTURA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 1/2017 espedientea ordainketa-kredituak txertatzeko modalitatean egina dago eta 523.611,54 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

2.-ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 2/2017 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2/2017 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 1.191.200 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2017ko martxoaren 31n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAHIRU BAIEZKO BOTO]:**



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2017ko aurrekontuari dagokion 2/2017 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 1.191.200 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.-ONARTZEA, EGOKI BADA, 2017KO LEHENENGO KONPROMISO-KREDITUEN ESPEDIENTEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Konpromiso-kredituen espedienteak 1.300.000 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2017ko martxoaren 31n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA 2017ko lehenengo konpromiso-kredituen espedientea, 1.300.000 euroko zenbatekoa duena: 650.000 euro 2017ko ekitaldi ekonomikoaren kargura, eta 650.000 euro 2018ko ekitaldi ekonomikoaren kargura.



4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, ORIOKO ZARAGUETA ESKOLA BIGARRENEZ HANDITZEKO LANAK KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ. LANAK JUAN EIZMENDI ETA ANA SANEIRO ARKITEKTOEK IDATZITAKO PROIEKTUAREN ARABERA EGINGO DIRA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2017ko martxoaren 31n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA baldintza administratibo partikularrak, Orioko Zaragueta eskola bigarrenez handitzeko lanak kontratatzeke, prozedura irekiaren bidez. Lanak Juan Eizmendi eta Ana Saneiro arkitektoek idatzitako proiektuaren arabera egingo dira. Baldintza-orrien laburpena honako hau da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

2.- Kontratuaren xedea.

- a) Xedearen deskripzioa: Orioko Zaragueta eskola bigarrenez handitzeko proiektua exekutatzeke lanak, proiektu teknikoaren arabera.
- b) Epea: Bederatzi aste.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Era: Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren zenbatekoa.

469.718,84 (BEZa barne). Lizitatzailleek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

5.- Bermeak.

Behin betikoa: kontratuaren adjudikazio zenbatekoaren % 5 (BEZik gabe).



6.- Kontratistaren sailkapena:

Lizitatzailleek egiaztatu beharko dute ondoko talde, azpitalde eta kategorietan sailkatuta daudela:

Talde	Azpitaldea	Kategoria:
C	1	a
C	2	b
C	4	c

7.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

8.- Dokumentazioa lortzeko.

Espedientearen dokumentazioa interesatuen eskura jarriko da www.orio.eus webguneko kontratistaren profilean eta dokumentazio teknikoa Orioko Udaleko bulego teknikoan aztertu ahal izango da.

9.- Proposamenak aurkeztea.

- a) Epea: Hamabost egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.
- c) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 ORIO.
- d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

10.- Proposamenak irekitzea (B gutun-azala).

- a) Tokia: Orioko Udala
- b) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta laugarren lanegunean; egun hori laneguna ez den batekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.
- c) Ordua: 12:00etan.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK, HONAKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN



KONTRATAZIOA ARAUTZEKO: ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 1. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATU ETA BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2017ko martxoaren 31n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orria, Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikina okupatzeko eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratazioa arautuko duena. Baldintza-orrien laburpena honako hau da:

1.- Erakunde adjudikatzailerak.

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailatza

2.- Kontratuaren xedea.

- a) Kontratuaren xedea: Baldintza-orri honen xedea honako hau da: arautzea Orioko Antilla Hondartzako 1. zenbakidun eraikinaren okupazioaren kontzesio administratiboaren kontratazio-baldintzak, bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.
- b) Kontratuaren iraupena: Kontratazio honen xedearen iraupenaren epea, guztira, hamar urtekoa izango da, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Era: Lehiaketa.

4.- Gutxieneko kanona.

Urteko gutxieneko kanona 20.680 eurokoa izango da (BEZik gabe). Lizitatzailerak aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.



ORIOK U D A L A



5.- Bermeak.

Behin betikoa: 25.000 €.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Dokumentazioa lortzeko.

Baldintza-orria www.orio.eus webgunean eta Udaleko idazkaritzan eskuratu ahal izango da.

8.- Proposamenak aurkeztea.

a) Epea: Hogeita sei egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.

c) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 ORIO.

d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

9.- Proposamenak irekitzea.

a) Tokia: Orioko Udala.

b) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo lanegunean; egun hori larunbatarekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.

c) Ordua: 12:00etan.

Gai-zerrendatik kanpo, udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du, aldez aurretik, **AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz], urgentziakotzat jo ondoren:

6.- MIRIAM URANGA EGURZAREN UKOA ORIOKO AUKERA INDEPENDENTEAREN (ORAIN) IZENEAN BETETZEN DUEN ORIOKO UDALEKO ZINEGOTZI KARGUARI.

Udalbatzarrak Miriam Uranga Egurzak zinegotzi karguari uko egiteko aurkeztu duen idatziaren berri jakiten du.



ORIOKOUNDALA



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Miriam Uranga Egurzaren ukoa Orioko Aukera Independentearen (ORAIN) izenean betetzen duen Orioko Udaleko zinegotzi karguari. ORAIN hautesle-elkarteak berariaz eskatu duenez, izendatu gabe geratzen da oraindik Miriam Uranga ordezkatzeko duen zinegotzia. ORAINek konpromisoa hartzen du ahalik eta lasterren adierazteko nor izendatzeko duen Miriam Uranga zinegotzia ordezkatzeko.

Udalbatzarkideek eskerrak ematen dizkiote Miriam Urangari, zinegotzi karguan egindako lanagatik.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,